

# Herrialde txostena: India

basque  
trade &  
investment

*2020ko iraila*

- + Indiako bulegoa
- + Adimen Lehiakorreko Unitatea




**BasqueTrade  
& Investment**

Agencia Vasca de Internacionalización  
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia

GRUPO  
**spri**  
TALDEA



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**  
BASQUE GOVERNMENT



## EDUKIEN AURKIBIDEA

<b>1. DATU OROKORRAK .....</b>	<b>4</b>
<b>2. BEGIRADA .....</b>	<b>5</b>
<b>3. TESTUINGURU SOZIO-POLITIKOA .....</b>	<b>6</b>
<b>4. TESTUINGURU MAKROEKONOMIKOA .....</b>	<b>7</b>
4.1. Abagune ekonomikoa .....	7
4.2. Balantza komertziala .....	7
4.3. Atzerriko inbertsioa .....	8
4.4. Enplegua .....	9
4.5. Perspektiba ekonomikoak .....	9
<b>5. KANPO-MERKATARITZA .....</b>	<b>11</b>
<b>6. ALDEBIKO HARREMANAK .....</b>	<b>15</b>
6.1. Euskadiren eta Indiaren arteko merkataritza .....	15
6.2. Euskadiren posizionamendua .....	18
6.3. Aldebiko inbertsioak .....	20
<b>7. SEKTORE NAGUSIAK .....</b>	<b>21</b>
7.1. Ekarpena BPGari .....	21
7.2. Negozio-aukerak .....	22
<b>8. NAZIOARTEKO HARREMANAK .....</b>	<b>25</b>
8.1. Nazioarteko kidetasunak .....	25
8.2. Merkataritza-akordioak .....	25
<b>9. ASKOTARIKO ARRISKUAK .....</b>	<b>26</b>
<b>10. ONDORIOA .....</b>	<b>28</b>
<b>11. ERREFERENTZIAK .....</b>	<b>29</b>



## TAULEN AURKIBIDEA

1. taula: Hazkunde adierazleak (2016-2020) .....	7
2. taula: Kkanpo-merkataritzaren adierazleak 2014-2018 .....	8
3. taula: AIZren adierazleak (2016-2018) .....	9
4. taula: 2018ko Enplegu adierazleak .....	9
5. taula: Indiak esportatutako produktu garrantzitsuenak (2018) .....	13
6. taula: Indiak inportatutako produktu garrantzitsuenak (2018) .....	13
7. taula: Indiak 2018an inportatutako produktu garrantzitsuenak kategoria ekonomiko handitan sailkatuta .....	14
8. taula: Indiak 2018an Europako herrialde nagusietatik eginiko inportazioak. Mila milioi dolar .....	14
9. taula: Indiarekiko kanpo-merkataritza, milaka euro .....	15
10. taula: Euskaditik Indiara esportatutako produktu garrantzitsuenak, milaka eurotan (2019) .....	16
11. taula: Euskadik Indiatik inportatutako produktu garrantzitsuenak, milaka eurotan (2019) .....	16
12. taula: Euskaditik Indiarako esportazioen pisua Espainiako esportazioetan (%) sektoreka .....	17
13. taula: Espainia eta Euskaditik Indiara eginiko esportazioen rankinga produktuka (2013-2019 GUZTIRA) .....	18
14. taula: BPGaren banakapena sektore ekonomiko eta industrialen arabera (2017) .....	21
15. taula: Merkatuko bolumena prezio konstanteetan, milioi euro, 2013-2018 .....	21
16. taula: COFACEn balorazioa .....	26

## GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. grafikoa: BPGaren eta inflazioaren aurreikuspenak (2017-2024) .....	10
2. grafikoa: Esportazioaren jomuga garrantzitsuenak (2018) .....	11
3. grafikoa: Inportazioen jatorri garrantzitsuenak (2018) .....	12
4. grafikoa: Euskadiren eta Indiaren arteko merkataritza (2003-2019) .....	15
5. grafikoa: Euskadiren pisua (%) Espainiako esportazioetan (2004-2019) .....	17



# 1. DATU OROKORRAK



## GOBERNUA

**Estatu-burua:** Ram Nath Kovind  
**Lehen ministroa:** Narendra Modi  
**Gobernu mota:** Errepublikak federala demokrazia parlamentarioarekin



## BIZTANLERIA

**Guztira:** 1.352,6 milioi  
**Hazkunde naturala:** % 1,0  
**Hirietako biztanleria:** % 34,0  
**Hizkuntza ofiziala:** hindia eta ingelesa  
**Negoioetarako hizkuntza:** ingelesa erabiltzen da gehien  
**Hiriburua:** Delhi  
**Hiri garrantzitsuenak (biztanleria):** Mumbai (18.3 mil.); Delhi (16.3 mil.); Kolkata (14.0 mil.) Chennai (8.6 mil.); Bengaluru (8.5mil.)



## EKONOMIA

**BPGa (2018, mila milioi euro):** 2.472 €  
**Per capita BPGa (PPP, 2018, euro):** 7.057,16 € **Per capita BPGa (2018, euro):** 1.832,95 €  
**BPGaren hazkundera (2018):** % 6,81  
**Urteko inflazioa (2018):** % 4,86  
**Enplegua:** 512,34 milioi  
**Enplegu-tasa (2018):** % 50,6  
**Langabezia-tasa (2018):** % 2,6  
**Ondasun eta zerbitzuen esportazioak (2018, mila milioi euro):** 615 €  
**Ondasun eta zerbitzuen inportazioak (2018, mila milioi euro):** 732 €  
**Kanbio-tasa (2020ko urtarrila):** 1 euro = 79.13 INR



## BESTE BATZUK

**GGI:** 130/188  
**I+G-n eginiko gastua BPGarekiko:** % 0.6  
**Internet erabiltzaileak:** % 36



## 2. BEGIRADA

Basque Trade-k berriki eginiko azterlan batean ikertu da 31 zonaldean banatutako 48 herrialdek Euskadi eta Basque Trade-rentzat izan lezaketen interesa. Azterlan horretan India 8, postuan kokatu da.

Nabarmentzekoak dira bere merkatuaren dinamismoa eta enpresen interesa, euskal enpresek Indian dituzten ezarpenen kopuruan islatua. Nabarmena da, orobat, Indian negozioak egiteak daukan konplexutasuna eta sarpenteriaz txikia. Paradoxikoki, oraindik ez da oso merkatu handia (31 zonalde horien arteko konparazioan batez bestekoaren pare kokatzen da). Munduko Bankuak egiten duen “Doing business 2020” rankingean, Indiaren sailkapenak gora egin du 142. postutik (2014) 63. posturaino (2019). Eta urtez urte kokapen hori hobetuz joango da Indiako merkatua irekitzen ari delako. Era berean, gero eta herrialde interesgarriagoa bihurtzen ari da balizko inbertsioen jatorri gisa, gehienbat Txinak eta Estatu Batuek elkarrekin daramaten gerra komertzialaren ondorioz. Enpresa asko Txina ez den beste merkatu bat bilatzen ari dira euren produkzioa kokatzeko, eta India oso paper garrantzitsua joatzen ari da horretan.

2019an, AFM klusterra eta Euskadiko makina-erreminta sektoreko hainbat enpresa Indiara joan ziren Indiako sektore zehatz horretan eskaintzen dituen negozio-aukerak aztertzeko. Aurreikusten da ekintza instituzionalek bide beretik jarraituko dutela datozen urteetan.

Esportazioei dagokienez, Indian aipatzekoak dira erregai mineralak, perlak eta harribitxiak eta ekipo mekanikoak (ondasunak). Esportazio horien hartzailerak nagusiak dira Estatu Batuak, Arabiar Emirerri Batuak (UAE) eta Txina (baliteke Txinak behera egitea ranking horretan azken aldiko gatazken ondorioz). Inportazioei dagokienez, aipagarriak dira baita ere erregai mineralak, perlak eta harribitxiak eta, kasu honetan, makina eta gailu elektrikoak, denak ere gehienbat Txina, Estatu Batuak eta UAEtik inportatuak.

2020ko maiatzean Indiako ekonomia moteldu egin zen COVID-19aren ondorioz, errupia indiarrek balioa galdu du euroaren aldean, eta Txina eta Nepalekiko mugetako tentsioek kezka piztu dute euskal enpresetan 2020ko negozio perspektibei dagokienez. Hori dela medio, gobernuak bortizki murriztu ditu Txinatik inportazioak, batez ere proiektu publikoetarakoak. Egoera horrek bultzada bat eman dio “Made in India” markari, pizgarriak emango zaizkielarik enpresei Indian gehiago fabrikatzeko, batez ere ingeniari astuneko sektoreetako konpainiei (energia, burdinbideak, aeronautika, defentsa eta automozioa). Bestalde, makina-erremintaren kontsumoak % 10etik gora hazten jarraituko du arestian aipatutako aldaketen ondorioz. Produktu industrialen eskaera nabarmen haziko da etorkizun hurbilean.

Beraz, esan daiteke aukera ona dela hori euskal enpresentzat, India Txinaren alternatiba bilakatzen ari delako. “Made in India” marka sustatzea ere onuragarria izan liteke euskal enpresak Indian koka daitezen eta errupiarren depreziazioa probestu dezaten.



### 3. TESTUINGURU SOZIO-POLITIKOA

2014ko hauteskunde orokorretan, Narendra Modi-ren BJP alderdiak gehiengo absolutua lortu zuen Parlamentuko behe-ganberak dituen 545 eserlekuetatik 335 eskuratuta, hauteskundeetarako sortutako Aliantza Nazional Demokratikoa (National Democratic Alliance, NDA) koalizioaren buruan. 335 eserleku horietatik 282 zegozkion BJP alderdiari eta, beraz, posible zukeen gobernatzea inoren laguntzarik gabe. XVI. legealdian zehar (2014 eta 2019 artean), Modi lehen ministroaren gobernuak helburu nagusitzat hartu zuen Indiaren egitura ekonomikoa modernizatzea, eta hainbat erreforma abiatu zituen horretarako: legeak onartu ziren kaudimen gabezia kasuak azkarrago tratatzeko, ondasun eta zerbitzu guztien gaineko zuzeneko zerga komun bat sortu zen herrialde osorako (Goods and Services Tax, GST), eta hainbat programa abiatu ziren, euren artean bereziki “Make in India” deitua, helburutzat zeukana India manufaktura-zentro global bat bihurtzea azpiegiturak garatuz eta atzerriko inbertsio zuzena (AIZ) indartuz.

2018an, Narendra Modi lehen ministroak aurrera jarraitu zuen bere erreforma programarekin, kontu publikoak saneatzeko, inbertsioak eta garapen industrialak sustatzeko eta negozioetarako giroa hobetzeko. Hauteskundeen ostean, gobernuak oinarritzko ondasun eta zerbitzuei buruzko lege-proiektu fiskal bat onartu zuen (29 estatuak merkatu bakar bihurtzeko) eta AIZeko kapitalak handitu ditu hainbat sektoretan, aldaketa administratiboak eta gobernu aldaketak eragin dituzten erreforma ekonomikoen bidez. Orobat, Gobernuak bat-batean erabaki zuen balio handiko billeteek – eskudiru guztiaren % 86– ez zutela baliorik izango gehiago eta bankuetan entregatu behar zirela. Politika horren helburu nagusia zen ekonomia informalarik aurre egitea.

2019ko apirilaren 11tik maiatzaren 19ra zazpi fasetan egin ziren hauteskunde orokorretan BJP alderdiak bere gehiengo absolutua errepikatu zuen –303 eserleku bereganatu zituen oraingoan. 2019ko maiatzaren 30ean, Narendra Modi-k lehen ministro kargua hartu zuen bere gobernuko gainerako 57 kideekin batera. Gehiengo berri horrek erakusten du aurreko legealdian hasitako erreforma prozesuak herriaren babesia izan duela, eta BJPk orain marjina politiko handiagoa du bere helburuak lortzeko.

Aurrerapen horiek guztiak gorabehera, Indiak erronka handiak ditu epe luzerako, batez ere hauek: emakumeen eta emakume gazteen aurkako diskriminazioa, argindarraren ekoizpen- eta banaketa-sistema ez eraginkorra, jabetza intelektualeko eskubideen babes-sistema ez eraginkorra, garraio eta nekazaritzako azpiegitura desegokiak, lan-aukera mugatuak nekazaritza ez diren sektoreetan, gastu handia eta gaizki bideratutako dirulaguntzak, oinarritzko eta goi-mailako kalitatezko hezkuntza jasotzeko zailtasunak, eta etengabeko exodoa landa-eremuetan.



## 4. TESTUINGURU MAKROEKONOMIKOA

### 4.1. Abagune ekonomikoa

Indiako ekonomiak beste herrialde gorakor batzuetakoak baino hobeto eutsi dio munduko ekonomiaren moteltzeari, eta aprobetxatu egin ditu petrolioak azken urteotan izan dituen prezio baxuak. NDFren datuen arabera, 2018an Indiako ekonomia % 7,3 hazi zen. Hazkunde hori bi urtetan izandako handiena eta 2016ko lehen hiruhilekotik izandako indartsuena da, eta industria-jardueraren gorakadari -batez ere manufakturretan eta eraikuntzan- eta nekazaritzaren hedapenari zor zaio. Hauek dira % 7tik gorako hazkundea izan zuten sektoreak: manufakturak, argindar hornikuntza, gasa eta ura, eraikuntza, eta administrazio publikoa eta defentsa. Gainera, Indiaren hazkundea munduko hirugarren handiena izan zen 2018an. Hurrengo urtean ere bide beretik jarraitu zuen (% 7,4), baina ustea da 2020an % 1,9 baino ez dela haziko COVID-19a dela medio.

Indiako defizit fiskala 101,93 mila milioi USDekoa izan zen 2018ko azaroaren amaieran (urte horretarako finkatutako aurrekontuaren % 114,8 da hori). Defizit horren atzean bi arrazoi nagusi daude: diru-sarrerak gutxitu izana eta gastua handitu izana, BPGarekiko proportzioan handia izaten jarraitzen duen zor batekin. Aurrekontuko helburuari dagokionez (% 112), portzentajea aurreko urtekoa baino apur bat handiagoa da. Inflazioa % 3,6tik (2017) % 4,8ra igo zen 2018an. Aldiz, ekonomiak prezio-erregimen egonkorragoa lortu nahi du. Gainera, gobernuak BPGaren % -6,6ko defizita izan zuen 2018an, eta datozen urteetan ere antzeko zifrak izatea espero da.

Aurreikuspenen arabera, 2024an Indiak gainditu egingo du Txina biztanleria handieneko herrialdeen zerrendan (gazteen biztanlerian India da nagusi). Gauzak horrela, ELGaren arabera, Indiako gazteen % 30 baino gehiago NEET da (enplegu, hezkuntza edo prestakuntza gabea). India herrialde pobrea da oraindik: *per capita* errenta oso baxua da, biztanleriaren ia % 25 pobrezia gorrian bizi da (egunean 1,9 USD baino gutxiagorekin bizi den munduko biztanleriaren heren bat inguru Indian bizi da), eta desberdintasun sozialak oso handiak dira: % 1 aberatsena herrialdeko aberastasunaren % 53aren jabe da. NLEk eginiko txostenen arabera, langabezia-tasa % 3,5ekoa izan zen 2018an, eta ustea da 2019an ere hein horretan mantenduko dela.

#### 1. taula: Hazkunde adierazleak (2016-2020)

Hazkunde adierazleak	2016	2017	2018 (e)	2019 (e)	2020 (e)
BPGa (mila milioi USD)	2.289	2.652	2.716	2.971	3.257
BPGa (urteko hazkundearen %, prezio konstantea)	8,1	7,1	7,0	7,4	1,9
Per capita BPGa (USD)	1.761	2.014	2.036	2.198	2.378
Inflazio-tasa (%)	4,5	3,6	4,7	3,8	4,2

*Iturria: NDF, World Economic Outlook, 2019ko urria*

### 4.2. Balantza komertziala

India herrialde protekzionista izan da beti, baina orain apurka-apurka nazioarteko salerosketetara zabaltzen ari da. Une honetan merkataritzak herrialdeko BPGaren % 40,6 suposatzen du. Hauek dira Indiak gehien esportatzen dituen produktuak: petrolioak (% 11,8), diamanteak (% 8,4), bitxigintzako artikulua (% 4,3),



medikamenduak (% 3,9) eta arrosa; aldiz, inportazioen artean aipatzekoak dira: petrolio (% 18,5), urrea (% 8,1), diamanteak (% 6,1), ikatza eta antzeko erregai solidoak (% 4,5), petrolio-gasa eta beste hidrokarburo gaseoso batzuk (% 2,9).

Indiaren balantza komertziala estrukturalki defizitariora da, bere energia-premia guztien % 80 inguru inportatzen du eta. Hidrokarburoen prezioak mundu osoan izan zuten beherakada gertakari onuragarria suertatu zen Indiako inportazioentzat, aukera eman baitzion pixka bat murrizteko bere defizit komertziala. 2018an, Indiak 325 mila milioi USD esportatu zituen ondasunetan, eta inportazioak, berriz, 514 mila milioi USDekoak izan ziren, 189 mila milioi USDeko balantza komertzial negatiboa sortuz.

## 2. taula: Kanpo-merkataritzaren adierazleak 2014-2018

Kanpo-merkataritzaren adierazleak	2014	2015	2016	2017	2018
Ondasunen inportazioa (milioi USD)	462.910	391.977	359.065	449.925	514.464
Ondasunen esportazioa (milioi USD)	322.694	267.147	264.020	299.241	324.778
Zerbitzuen inportazioa (milioi USD)	126.710	122.225	133.710	153.960	175.448
Zerbitzuen esportazioa (milioi USD)	155.670	155.288	161.845	184.673	204.475
Ondasun eta zerbitzuen inportazioa (urteko hazkundera % -tan)	0,9	-5,9	4,4	17,6	15,4
Ondasun eta zerbitzuen esportazioa (urteko hazkundera % -tan)	1,8	-5,6	5,1	4,7	12,5
Ondasun eta zerbitzuen inportazioa (BPGaren %)	26,0	22,1	21,0	22,0	23,6
Ondasun eta zerbitzuen esportazioa (BPGaren %)	23,0	19,8	19,2	18,8	19,7
Balantza komertziala (milioi USD)	-144.047	-136.884	-107.476	-148.134	-186.692
Balantza komertziala (zerbitzuak barne) (milioi USD)	-67.970	-63.249	-41.579	-72.212	-105.918
Kanpo-merkataritza (BPGaren %)	48,9	41,9	40,2	40,8	43,4

*Iturria: WTO – World Trade Organisation, 2018*

## 4.3. Atzerriko inbertsioa

CNUCYD erakundeak munduko inbertsioei buruz eginiko 2019ko txostenaren arabera, Indiako ekonomia AIZren 10 hartzaille handienetako bat izan zen. AIZren sarrera-fluxuak inoizko zifrarik altuenera iritsi ziren 2016an, 44,5 mila milioira hain zuzen; aldiz, mundu mailako beheranzko joerarekin batera, Indiako fluxuak ere 39,9 mila milioi USDera jaitsi ziren 2017an. 2018an zifra hori berrirori handitu zen, 42.300 milioi USDera iristeraino. Historikoki, Indiak eskualdeko sarrera-fluxuen % 70-80 hartu izan du. AIZ indartsua izan zen enbretaren sektorean eta komunikazio eta finantza zerbitzuetan. Urtean zehar 16 mila milioi USDeko salerosketak egin ziren txikizkako merkataritzan. Badira hainbat arrazoi Indiako AIZaren hazkundera azaltzeko, batez ere dituen zerbitzu oso espezializatuak, bere lan-esku kualifikatu, ingelesdun eta merkea, eta mila milioi biztanleko bere merkatu potentziala. AIZaren stock-a 389 mila milioi euroraino hazi zen 2018an (% 4ko hazkundera eta BPGaren % 14,2). 2018an, hauek izan ziren Indiako inbertitzaile garrantzitsuenak: Maurizio uharteak, Herbehereak, Estatu Batuak, Japonia, Erresuma Batua, Alemania, Frantzia, Arabiar Emirerri Batuak eta Txipre. Inbertsioak sektore hauetara bideratu ziren nagusiki: sektore kimikoa, zerbitzuak, konputazio-programak eta ekipoak, merkataritza, telekomunikazioak, automozio industria, eraikuntza, energia eta farmakoak.

2019an, India 77. postuan ageri zen (190 herrialderen artean) Munduko Bankuaren Doing Business txostenean, aurreko urtean zeukan tokia (100. postua) nabarmen hobetuz. Inbertitzaile globalak Indiara erakartzen dituen faktore nagusia Indiako demografia da, baina baita ere bere barometro egonkorak, dela inflazioa, defizit fiskala edo hazkundera. Kontuan harturik Indiaren demografia hazkorra eta merkataritza elektronikoa eta teknologikoko merkatu izugarriak, bi arlo horietako jarduerak hazi egin beharko luke datozen urteetan. 2018an, Walmart-ek (katea amerikar erraldoiak)





Flipkart erosi zuen 16 mila milioi USDtan, urte hartako fusio eta erosketa negozio handiena burutuz. Walmart-ek enpresaren % 77aren kontrola hartu zuen, inbertitzaile zenbaiten parte a erosiz eta Amazon-ekin darabilen gerra zabalduz.

### 3. taula: AIZren adierazleak (2016-2018)

Adierazlea	2016	2017	2018
AIZ (milioi USD)	44.481	39.904	42.286
AIZren stock-a (milioi USD)	318.320	377.287	386.354
Greenfield inbertsio kopurua	844	705	802
AIZren fluxua guztizko inbertsioarekiko	7,0	n/a	n/a
AIZren stock-a (BPGaren %)	14,1	n/a	n/a

*Iturria: UNCTAD*

## 4.4. Enplegua

Indiako lan-merkatuak oso langabezia-tasa txikia dauka. Era berean, lehen sektoreko enplegu portzentajea handia da. Hona hemen Indiako lan-merkatuaren datu garrantzitsuenak:

### 4. taula: 2018ko Enplegu adierazleak

ADIERAZLEA	2018
Enplegua guztira (milioiak)	512,34
<b>ENPLEGUA SEKTOREKA</b>	
- Lehen sektorea (%)	43,8
- Industria sektorea (%)	24,7
- Zerbitzuen sektorea (%)	31,5
Langabezia-tasa (%)	2,6

*Iturria: World bank*

Taulan ikusten denez, sektore nagusia lehen sektorea da, nekazaritza oraindik oinarritzkoa baita Indiarentzat, nahiz eta industria indarra hartzen ari den pixkanaka. Langabezia-tasa baxua izan arren, lanpostu gehienak prekarioak dira, eta Modi-ren gobernuak hainbat neurri hartu ditu hori hobetu nahian.


## 4.5. Perspektiba ekonomikoak

Indiaren ekonomiak izango duen bilakaeraren aurreikuspenek diote BPGa asko haziko dela (% 7a baino gehiago une oro), eta prezioen hazkundea konstante samarra izango dela. NDFren arabera, datozen urteetan (2020 urtea alde batera utzita) BPGa % 7,7 inguru haziko da batez beste, eta inflazioa % 3,3 ingurukoa izango da COVID-19aren ondorioz.

Hona hemen bi aldagai horientzat aurreikusitako bilakaeraren grafikoa.



1. grafikoa: BPGaren eta inflazioaren aurreikuspenak (2017-2024)



*Iturria: Agentziak egina NDFren datuekin*




## 5. KANPO-MERKATARITZA

Jarraian, Indiako kanpo-merkataritzaren jomuga eta jatorri herrialdeak. Europako esportatzaileen artean daude Erresuma Batua, Alemania eta Herbehereak. Inportazioei dagokienez, Suitza da nabarmentzen den Europako herrialde bakarra.

Espainia 36. postuan dago Indiarekin salerosketak egiten dituzten herrialdeen artean, Estatutik Indiara hiru aldiz gehiago inportatzen delarik esportatzen dena baino.


### 2. grafikoa: Esportazioaren jomuga garrantzitsuenak (2018)



Iturria: Agentziak egina Comtrade-ren datuekin



3. grafikoa: Inportazioen jatorri garrantzitsuenak (2018)



Iturria: Agentziak egina Comtrade-ren datuekin



Hauek dira 2018an Indiak esportatu zituen produktu garrantzitsuenak:

#### 5. taula: Indiak esportatutako produktu garrantzitsuenak (2018)

Produktua	MILIOI DOLAR	%
27 Erregai mineralak	168.786	% 15,07
71 Perlak eta harribitxiak	64.864	% 12,17
84 Ekipo-ondasun mekanikoak	52.451	% 6,33
87 Automobilak	43.206	% 5,66
29 Produktu kimiko organikoak	22.586	% 5,51
30 Produktu farmazeutikoak	15.188	% 4,43
85 Makina eta aparatu elektrikoak	12.001	% 3,67
72 Galdaketa, burdina eta altzairua	10.132	% 3,09
52 Kotoia	9.461	% 2,51
62 Arropak, puntuzkoak izan ezik	7.269	% 2,50
39 Materia plastikoak	6.216	% 2,44
10 Zerealak	5.938	% 2,39
61 Puntuzko arropak	5.929	% 2,35
73 Burdinurtuzko manufakturak	5.489	% 2,20
03 Arraina	5.428	% 1,98

*Iturria: Agentziak egina Comtrade-ren datuekin*

Jarraian, berriz, Indiak 2018an inportatutako produktu garrantzitsuenak:

#### 6 taula: Indiak inportatutako produktu garrantzitsuenak (2018)

Produktua	MILIOI DOLAR	%
27 Erregai mineralak	168.786	% 33,25
71 Perlak eta harribitxiak	64.864	% 12,78
85 Makina eta aparatu elektrikoak	52.451	% 10,33
84 Ekipo-ondasun mekanikoak	43.206	% 8,51
29 Produktu kimiko organikoak	22.586	% 4,45
39 Materia plastikoak	15.188	% 2,99
72 Galdaketa, burdina eta altzairua	12.001	% 2,36
15 Animalia edo landare-gantzak eta -olioak	10.132	% 2,00
90 Optikako instrumentuak	9.461	% 1,86
28 Prod. kimiko inorganikoak	7.269	% 1,43
87 Automobilak	6.216	% 1,22
38 Produktu kimikoak	5.938	% 1,17
31 Ongarriak	5.929	% 1,17
76 Aluminioa eta bere manufakturak	5.489	% 1,08
26 Mineralak, zepak eta errautsak	5.428	% 1,07

*Iturria: Agentziak egina Comtrade-ren datuekin*



Jarraian, Indiak 2018an inportatutako produktu garrantzitsuenak kategoria ekonomiko handitan sailkatuta:

#### 7. taula: Indiak 2018an inportatutako produktu garrantzitsuenak kategoria ekonomiko handitan sailkatuta

Produktuak	Milioi dolar
22 Beste partida batean zehaztu gabeko hornidura industrial elaboratuak	160.923
31 Oinarrizko erregai eta lubrifikatzailak	139.294
41 Kapital-ondasunak (garraioko ekipoak izan ezik)	52.630
21 Beste partida batean zehaztu gabeko oinarrizko hornidura industrialak	39.152
42 Kapital-ondasunen zati eta osagarriak (garraioko ekipoak izan ezik)	36.832
32 Erregai eta lubrifikatzailak elaboratuak	26.885
53 Garraioko ekipoen piezak eta osagarriak	14.664
12 Elikagai eta edari elaboratuak	12.106
11 Oinarrizko elikagai eta edariak	5.984
61 Kontsumorako artikulua iraunkorrak	4.904
62 Beste partida batean zehaztu gabeko kontsumorako artikulua erdi-iraunkorrak	4.444
63 Beste partida batean zehaztu gabeko kontsumorako artikulua iragankorrak	4.130
51 Bidaiarientzako ibilgailu motordunak	2.914
52 Garraioko ekipoak eta horien zati eta osagarriak, beste batzuk	262
<b>GUZTIRA</b>	<b>505.124</b>

*Iturria: Agentziak egina COMTRADEren datuekin (BEC Classification by Broad Economic Categories)*

Aztertu ahal izateko Euskadik Indian duen sarpem komertziala handitzeko aukerak, hona hemen Europako bost bazkide garrantzitsuenen eginiko eraketak sektoreka. Ikusten denez, erdi-manufaktura inportatzen dira gehienik, eta ondoren, oso hurbil, ekipo-ondasunak. Hirugarrenik, baina askozaz atzerago, garraiorako elementuak.

#### 8. taula: Indiak 2018an Europako herrialde nagusietatik eginiko inportazioak. Mila milioi dolar

	GUZTIRA	ALEMANIA	ERRESUMA BATUA	ITALIA	FRANTZIA	ESPAINIA
2 Erdi-manufaktura	12.386	4.146	4.164	1.814	1.396	867
4 Kapital-ondasunak	12.334	6.737	1.349	2.633	1.245	370
5 Garraioko elementuak	3.684	2.004	847	265	459	108
6 Kontsumo-ondasunak	1.413	516	275	281	167	174
7 Beste ondasun batzuk	689	302	38	199	64	860
3 Energia	650	88	160	112	212	78
1 Janariak eta edariak	483	72	223	66	48	75
<b>GUZTIRA</b>	<b>31.639</b>	<b>13.865</b>	<b>7.056</b>	<b>5.370</b>	<b>3.591</b>	<b>2.532</b>

*Iturria: Agentziak egina COMTRADEren datuekin (BEC Classification by Broad Economic Categories)*



## 6. ALDEBIKO HARREMANAK

### 6.1. Euskadiren eta Indiaren arteko merkataritza


9. taula: Indiarekiko kanpo-merkataritza, milaka euro

	2014	2015	2016	2017	2018	2019	% 18/17	% 19/18
<b>Esportazioak</b>	207.995	199.521	193.859	199.192	189.051	225.284	-5,09	19,17
<b>Inportazioak</b>	117.531	128.047	154.802	214.019	215.528	252.311	0,71	17,07
<b>Balantza komertziala</b>	90.464	71.474	39.057	-14.827	-26.477	-27.027		

*Iturria: Agentziak egina EUSTATen datuekin*

India Euskadiren 20. bazkide komertziala izan zen 2019an, eta bien arteko merkataritza 477 milioira iritsi zen. Hala taulan nola grafikoan ikusten den bezala, esportazioek eta inportazioek goranzko joera izan dute 2003az geroztik. Nabarmentzekoa da inportazioak nahiko irregularrak izan direla, eta horren ondorioz balantza komertziala negatiboa izan dela zenbait unetan (2017-2019 artean) eta positiboa beste zenbaitetan (2013-2016 artean). Orobat ikusten da 2020rako joera goranzkoa dela, bai esportazioetan eta bai inportazioetan ere.

4. grafiko: Euskadiren eta Indiaren arteko merkataritza (2003-2019)



*Iturria: Agentziak egina EUSTATen datuekin*

Hauek dira Euskadiren eta Indiaren artean esportatu eta inportatutako produktu garrantzitsuenak:



10. taula: Euskaditik Indiara esportatutako produktu garrantzitsuenak, milaka eurotan (2019)

Esportazioak	2019	%
84 Ekipo-ondasun mekanikoak	78.025	% 35
48 Papera eta kartoia	42.217	% 19
73 Burdinurtuzko manufakturak	33.605	% 15
85 Makina eta aparatu elektrikoak	21.680	% 10
87 Automobilak	15.980	% 7
72 Galdaketa, burdina eta altzairua	6.931	% 3
29 Produktu kimiko organikoak	4.912	% 2
40 Kautxua eta bere manufakturak	4.318	% 2
32 Larrua ontzeko estraktuak	3.706	% 2
68 Harrizko manufakturak	2.035	% 1
90 Optikako instrumentuak	1.678	% 1
39 Materia plastikoak	1.552	% 1
30 Produktu farmazeutikoak	1.245	% 1
74 Kobrea eta bere manufakturak	1.208	% 1
<b>Guztira</b>	<b>225.284</b>	<b>% 100</b>

*Iturria: Agentziak egina EUSTATen datuekin*

11. taula: Euskadik Indiatik inportatutako produktu garrantzitsuenak, milaka eurotan (2019)

Inportazioak	2019	%
27 Erregai mineralak	77.190	% 31
84 Ekipo-ondasun mekanikoak	38.178	% 15
72 Galdaketa, burdina eta altzairua	36.203	% 14
73 Burdinurtuzko manufakturak	22.866	% 9
29 Produktu kimiko organikoak	22.532	% 9
85 Makina eta aparatu elektrikoak	12.106	% 5
87 Automobilak	7.340	% 3
62 Arropak, puntuzkoak izan ezik	7.333	% 3
39 Materia plastikoak	3.263	% 1
82 Tresnak eta lanabesak	3.251	% 1
63 Bestelako oihalezko artikulak	3.109	% 1
40 Kautxua eta bere manufakturak	1.826	% 1
76 Aluminioa eta bere manufakturak	1.823	% 1
64 Oinetakoak eta beren zatiak	1.705	% 1
61 Puntuzko arropak	1.506	% 1
42 Larruzko manufakturak	1.457	% 1
<b>Guztira</b>	<b>252.311</b>	<b>% 100</b>


*Iturria: Agentziak egina EUSTATen datuekin*





Taula hauetan ikusten den bezala, Euskadik Indiarekin egiten dituen salerosketa gehienak ekipo-ondasun mekanikoen arlokoak dira, eta sektore hori garrantzitsua da bai esportazioetan eta bai inportazioetan. Halaber, azpimarratzekoak dira burdinurtuzko manufakturen eta burdinaren eta altzairu galdaketaren salerosketak. Bakarka harturik, paper eta kartoiaren esportazioa da aipagarriena; inportazioei dagokienez, berriz, erregai mineralak nabarmentzen dira, espero zitekeen bezala.

### 5. grafikoa: Euskadiren pisua (%) Espainiako esportazioetan (2004-2019)



Iturria: Agentziak egina Datacomex-en datuekin

Grafiko honetan ikusten da EAEk Indiara eginiko esportazioen portzentajea handiagoa dela Euskadik guztizko esportazioetan daukan pisu osoa baino. Alde handiena 2008an erregistratu zen, Euskaditik Indiarako esportazioak % 25 inguruan kokatu zirenean; oro har, portzentaje hori % 15 ingurukoa izan da, eta % 5eko aldea izan du guztizko esportazioekin alderatuta.

Beheko taulan ageri da 2013 eta 2019 urteen arteko sektorekako banaketa. Hainbat gauza azpimarratu behar dira. Lehenik eta behin, automozio sektoreak azkenean lortu du Indiako merkatuan sartzea, % 29ko portzentajea erdietsi zuelarik 2019an. Portzentaje horixe dute baita ere ekipo ondasunek, Espainiako guztizkoa baino dezente handiagoa, non Euskadiko ekipo ondasunek % 15,6ko portzentajea ordezkaten baitute. Halaber, batez bestekoaren gainetik dago erdi-manufakturetan (% 17), kontuan izanik Espainiaren sarpen-maila % 9,5ekoa dela. Beraz, ondoriozta dezakegu gure industria sektorea Espainia osokoa baino gehiago bideratzen dela Indiara.

### 12. taula: Euskaditik Indiarako esportazioen pisua Espainiako esportazioetan (%) sektoreka

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2013-2019 guztira
<b>Euskadik Indiarako esportazioetan duen pisua sektoreka (%)</b>	% 14	% 18	% 16	% 15	% 16	% 14	% 17	% 16
<b>1 ELIKAGAIAK, EDARIAK ETA TABAKOA</b>	% 0	% 0	% 0	% 2	% 0	% 0	% 0	% 0
<b>2 PRODUKTU ENERGETIKOAK</b>	% 5	% 48	% 0	% 0	% 0	% 0	% 0	% 13
<b>3 LEHENGAIK</b>	% 25	% 22	% 27	% 7	% 6	% 8	% 4	% 14
<b>4 ERDI-MANUFATURAKO}</b>	% 12	% 15	% 17	% 16	% 16	% 15	% 17	% 16



	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2013-2019 guztira
5 EKIPO-ONDASUNAK	% 27	% 24	% 27	% 26	% 28	% 24	% 29	% 26
6 AUTOMOBIL SEKTOREA	% 3	% 5	% 7	% 8	% 5	% 18	% 29	% 9
7 KONTSUMO-ONDASUN IRAUNKORRAK	% 3	% 2	% 2	% 5	% 3	% 5	% 6	% 4
8 KONTSUMOKO MANUFATURAK	% 1	% 3	% 1	% 1	% 1	% 0	% 0	% 1
9 BESTE MERKATU-GAI BATZUK	% 1	% 0	% 1	% 1	% 1	% 1	% 0	% 1

*Iturria: Agentziak egin Datacomex-en datuekin*

### 13. taula: Espainia eta Euskaditik Indiara eginiko esportazioen rankinga produktuka (2013-2019 GUZTIRA)

	Espainia		Euskadi
Aukeratutakoa guztira 2013-2019	8.718.657	Aukeratutakoa guztira 2013-2019	1.376.315
4 ERDI-MANUFATURA	3.394.307	5 EKIPO-ONDASUNAK	678.124
5 EKIPO-ONDASUNAK	2.563.276	4 ERDI-MANUFATURA	526.876
8 KONTSUMOKO MANUFATURAK	646.018	3 LEHENGAIK	59.025
6 AUTOMOBIL SEKTOREA	558.626	2 PRODUKTU ENERGETIKOAK	51.182
1 ELIKAGAIK, EDARIAK ETA TABAKOA	466.859	6 AUTOMOBIL SEKTOREA	49.416
3 LEHENGAIK	411.615	8 KONTSUMOKO MANUFATURAK	5.722
2 PRODUKTU ENERGETIKOAK	391.331	7 KONTSUMO-ONDASUN IRAUNKORRAK	3.494
9 BESTE MERKATU-GAI BATZUK	191.940	1 ELIKAGAIK, EDARIAK ETA TABAKOA	1.487
7 KONTSUMO-ONDASUN IRAUNKORRAK	94.681	9 BESTE MERKATU-GAI BATZUK	985

*Iturria: Agentziak egin Datacomex-en datuekin*

Atal honetan ikusten da ekipo ondasunak eta erdi-manufakturak direla gehien esportatzen diren produktuak, bai Espainiatik eta bai Euskaditik, eta horrek berretsi egiten ditu aurreko taulako portzentajeak.

Bestalde, aipatzekoa da, CIVEXen datuen arabera, 89 euskal enpresa ari direla esportatzen Indiara.

## 6.2. Euskadiren posizionamendua

Interesgarria da Indiako inportazioetan daukagun posizionamendua aztertzea, termino erlatiboetan lehiakor ote garen jakiteko.

2017an, Indian genuen sarpem komertziala oso baxua zen (% 0,05), eta termino erlatiboetan 28. postuan zegoen aztertutako 34 eremuen artean, hau da, azkenetakoa zen.

Aurreko atalean ikusi da Indiarako esportazioetan izan genuen pisua handiagoa izan zela Espainiako guztizko esportazioetan izan genuena baino.

Hona hemen Indiako inportazioen gaineko sektorekako euskal kuota 2017an (eskuragarri dauden azken datuak urte horretakoak dira) eta azken bost urteetan izan duen bilakaera.

Soilik bi urte hartzen baditugu joerak interpretatzeko (kasu honetan, 2012 eta 2017), hauxe ikusten da:



Makina-erremintaren sektorea kenduta -non EAren 2017ko kuota % 1,26koa baita-, gainerako sektoreetako euskal kuota % 1a baino txikiagoa da, eta beste horrenbeste esan liteke kuotak azken 5 urteetan izan duen hazkunderaz.

Nabarmendu egiten da ore, paper eta bere manufakturen sektore hazkorra, bai inportazioetan eta bai kuotan; eta berdin transformadoreena, nahiz eta hazkundera apalagoa den kasu honetan. Gehien hazi diren inportazioak edarien eta aireko nabigazioaren sektoreetakoak dira, baina EAren kuota ez da hazi kasu horietan.

Tabla -29- India. Ranking de cuota por sector en 2017 y ranking de evolución de cuotas según crecimiento 2012-2017

SECTORES	2017	SECTORES	Evol. 2017-2002	Evol. 2017-2012
84C Máquinas herramienta para trabajar metal	1,26%	47-49 Pasta, papel y sus manufacturas	0,66%	0,84%
47-49 Pasta, papel y sus manufacturas	0,95%	84D Grúas y aparatos elevacion	0,83%	0,69%
73A Tubos y accesorios	0,91%	85B Transformadores	0,40%	0,33%
84D Grúas y aparatos elevacion	0,84%	86 Vehículos de vías férreas	-0,28%	0,31%
86 Vehículos de vías férreas	0,48%	73D Otras manufacturas de hierro o de acero	-0,80%	0,22%
73B Depósitos, recipientes	0,44%	84B Motores	-0,02%	0,10%
85B Transformadores	0,40%	40 Caucho y manufacturas	0,09%	0,07%
73D Otras manufacturas de hierro o de acero	0,25%	83 Manufacturas metálicas	-0,23%	0,06%
93 Amas y municiones	0,20%	85E Otros bienes de equipo eléctricos	0,06%	0,04%
83 Manufacturas metálicas	0,19%	68-70 Piedra, cementos y vidrio	-0,01%	0,03%
84B Motores	0,19%	28-38 Productos químicos	0,08%	0,03%
72E Otros de fundición hierro y acero	0,17%	75, 78-81 Otros metales y manufacturas	-0,23%	0,02%
84F Otra maquinaria mecánica	0,14%	73B Depósitos, recipientes	0,44%	0,02%
40 Caucho y manufacturas	0,11%	72A Productos planos acero común	0,04%	0,01%
73C Cables, alambre, tornillería, muelles	0,09%	87D Otros del capítulo de vehículos automoviles	0,01%	0,01%
68-70 Piedra, cementos y vidrio	0,09%	15 Grasas y aceites	0,00%	0,00%
85E Otros bienes de equipo eléctricos	0,09%	22 Bebidas	0,00%	0,00%
87C Partes y accesorios	0,07%	90-92 XVIII Aparatos de óptica y precisión	0,00%	0,00%
82 Herramientas y útiles	0,07%	73C Cables, alambre, tornillería, muelles	-0,02%	0,00%
72D Barras y perfiles acero inoxidable y aleado	0,07%	87A Vehículos automóviles	0,00%	0,00%
84E Equipamiento hostelería y aparatos domésticos	0,04%	87B Vehículos para transporte mercancías	0,00%	0,00%
74 Cobre y sus manufacturas	0,04%	88 Navegación aérea o espacial	0,00%	0,00%
72A Productos planos acero común	0,04%	89 Navegación marítima o fluvial	0,00%	0,00%
28-38 Productos químicos	0,04%	97 XXI Objetos de arte	0,00%	0,00%
75, 78-81 Otros metales y manufacturas	0,03%	71 Joyería y bisutería	0,00%	0,00%
85D Alumbrado	0,03%	6 a 14 Productos del reino vegetal	0,00%	0,00%
94-96 Muebles, juguetes, otras	0,02%	25-27 Productos minerales	0,00%	0,00%
72B Barras y perfiles acero común	0,02%	41-43, 50-67 Textiles y sus manufacturas	0,00%	0,00%
76 Aluminio y manufacturas	0,01%	16-24 (-22) Productos alimenticios	0,00%	0,00%
90-92 XVIII Aparatos de óptica y precisión	0,01%	85C Baterías, acumuladores, electroimanes	0,00%	0,00%
87D Otros del capítulo de vehículos automoviles	0,01%	85D Alumbrado	0,08%	0,00%
39 Materias plásticas	0,01%	44-46 Madera y sus manufacturas	0,00%	0,00%
85A Motores y generadores eléctricos	0,01%	94-96 Muebles, juguetes, otras	-0,30%	-0,01%
44-46 Madera y sus manufacturas	0,00%	39 Materias plásticas	0,00%	-0,02%
15 Grasas y aceites	0,00%	72C Productos planos acero inoxidable y aleado	0,00%	-0,02%
99 No clasificados	0,00%	84A Calderas y turbinas	-0,08%	-0,03%
22 Bebidas	0,00%	87C Partes y accesorios	-0,44%	-0,05%
85C Baterías, acumuladores, electroimanes	0,00%	72D Barras y perfiles acero inoxidable y aleado	-0,20%	-0,05%
16-24 (-22) Productos alimenticios	0,00%	1 a 5 Productos del reino animal	0,00%	-0,06%
84A Calderas y turbinas	0,00%	72E Otros de fundición hierro y acero	0,13%	-0,06%
41-43, 50-67 Textiles y sus manufacturas	0,00%	74 Cobre y sus manufacturas	-0,19%	-0,06%
72C Productos planos acero inoxidable y aleado	0,00%	84F Otra maquinaria mecánica	0,08%	-0,09%
25-27 Productos minerales	0,00%	99 No clasificados	-0,18%	-0,12%
89 Navegación marítima o fluvial	0,00%	85A Motores y generadores eléctricos	0,00%	-0,13%
87A Vehículos automóviles	0,00%	93 Amas y municiones	0,20%	-0,15%
87B Vehículos para transporte mercancías	0,00%	76 Aluminio y manufacturas	-0,80%	-0,17%
6 a 14 Productos del reino vegetal	0,00%	72B Barras y perfiles acero común	0,01%	-0,17%
97 XXI Objetos de arte	0,00%	84E Equipamiento hostelería y aparatos domésticos	-0,14%	-0,18%
71 Joyería y bisutería	0,00%	82 Herramientas y útiles	-0,01%	-0,23%
88 Navegación aérea o espacial	0,00%	84C Máquinas herramienta para trabajar metal	0,55%	-0,40%
1 a 5 Productos del reino animal	0,00%	73A Tubos y accesorios	-3,45%	-1,39%


Fuente: Elaboración propia con datos Eustat y UN Comtrade

Jarraian grafiko bat dago non laburbiltzen den Euskadik Indian duen posizionamendua sektoreka, eta hau da bere interpretazioa:

- **Indartsuak:** sektore hauetan asko handitu dira Indiako inportazioak azken 5 urteetan, eta Euskadiko kuota ere handitu egin da.
- **Helduak:** inportazioak ez dira hazi, baina Euskadiren kuota bai.
- **Potentzialak:** sektore hauetan asko handitu dira inportazioak azken 5 urteetan, baina Euskadiko kuota ez da handitu.
- **Interes gutxikoak:** sektore hauetan inportazioak ez dira handitu azken 5 urteetan, eta Euskadiko kuota ere ez.



Sektore indartsuei edo potentziala dutenei erreparatu zergo, ikusiko dugu Indiaren inportazioak edarien sektorean hazi direla gehien, % 110 inguru, baina EAerenak ez dira hazi. Badaude beste sektore indartsu batzuk edo potentziala dutenak: sektore aeroespaziala, elikagaiak eta beste ekipo-ondasun elektriko batzuk.



16-24 (-22)	Productos alimenticios	73C	Cables, alambre, tornillería, muelles	85A	Motores y generadores eléctricos
22	Bebidas	73D	Otras manufacturas de hierro o de acero	85B	Transformadores
25-27	Productos minerales	74	Cobre y sus manufacturas	85E	Otros bienes de equipo eléctricos
28-38	Productos químicos	76	Aluminio y manufacturas	86	Vehículos de vías férreas
39	Materias plásticas	82	Herramientas y útiles	87A	Vehículos automóviles
40	Caucho y manufacturas	83	Manufacturas metálicas	87B	Vehículos para transporte mercancías
47-49	Pasta, papel y sus manufacturas	84B	Motores	87C	Partes y accesorios
72A	Productos planos acero común	84C	Máquinas herramienta para trabajar metal	88	Navegación aérea o espacial
72B	Barras y perfiles acero común	84D	Grúas y aparatos elevación	89	Navegación marítima o fluvial
72D	Barras y perfiles acero inoxidable y aleado	84E	Equipamiento hostelería y aparatos domésticos		
73A	Tubos y accesorios	84F	Otra maquinaria mecánica		

## 6.3. Aldebiko inbertsioak

Basque Trade-k eginiko estimazioen arabera, 77 euskal enpresak ezarpen komertzial eta produktiboak dituzte Indian. Batez ere sektore hauetakoa dira: automozioa, trenbidea, makina-erreminta, galdaketa eta ekipo elektrikoak.

Bureau Van Dick bulegoaren arabera, 10 euskal enpresa daude Indiako enpresen kapitala dutenak.



## 7. SEKTORE NAGUSIAK

### 7.1. Ekarpena BPGari

Hona hemen Indiako BPGaren banaketa 2017an:

14. taula: BPGaren banakapena sektore ekonomiko eta industrialen arabera (2017)

Sektore ekonomiko eta industrialak	2017	
	BPGaren %	milioi euro
Nekazaritza, basogintza eta arrantza	% 17,94	313.914
Meatzaritza	% 2,41	42.076
Manufaktura	% 16,82	294.354
Argindar, gas eta ur hornidura eta hondakinen kudeaketa.	% 2,63	45.935
Eraikuntza	% 7,43	129.971
Handizkako eta txikizkako merkataritza	% 10,45	182.842
Garraioa eta posta zerbitzuak	% 4,91	85.815
Ostatu jarduerak eta otordu zerbitzuak	% 1,01	17.617
Informazioa eta komunikazioak	% 1,85	32.417
Finantzak eta aseguruak	% 5,37	93.888
Onibarrak / ondasun higiezinak eta jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak	% 15,28	267.204
Administrazio publikoa eta defentsa	% 6,21	108.633
Zerbitzuetako beste jarduera batzuk	% 7,69	134.554
Barne Produktu Gordina	% 100,00	1.749.222

*Iturria: Agentziak egina Ministry of Statistics and Programme Implementation-en datuekin*

**Kanbio-tasa:** 1 € = 79,13INR // 1INR = 0,013 €

Aipatzekoa da industriak eta energiak BPGaren % 19,45 ordezkatzen dutela, eta portzentaje hori Euskadikoa (% 24,5) baino dezente baxuagoa dela.

15. taula: Merkatuko bolumena prezio konstanteetan, milioi euro, 2013-2018

Merkatuko bolumena prezio konstanteetan	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Petrolio gordinaren eta gas naturalaren erauzketa	16.056	15.888	15.799	16.692	17.654	18.608
Ikatz eta lignito meatzaritza	12.807	13.916	12.559	14.117	15.028	15.783
Petrolio birfinduzko produktuak	139.422	131.928	101.157	104.380	117.832	133.953
Gas fabrikazioa eta banaketa	12.256	13.470	14.279	15.487	16.898	18.858
Argindarra	42.075	47.043	48.288	49.866	54.454	61.586
Mahai-tresnak, eskuko tresnak eta burdindegi-tresnak orokorrean	7.858	8.571	8.941	9.191	9.774	10.661
Aire girotu industrialeko makinak, enbalajeak eta erabilpen orokorreko beste makina batzuk	3.923	4.734	5.241	5.459	5.894	6.405



Merkatuko bolumena prezio konstanteetan	2013	2014	2015	2016	2017	2018
<b>Punpak, konpresoreak, iturriak eta balbulak</b>	8.267	10.835	13.002	13.426	14.013	15.055
<b>Nekazaritzako eta basogintzako makinak</b>	8.413	8.111	7.535	7.916	8.030	8.862
<b>Makina-erreminta</b>	7.015	10.561	9.054	9.703	10.507	11.704
<b>Kautxu, plastiko eta paper industrietarako makinak eta helburu berezietarako beste makina batzuk</b>	4.525	5.074	5.279	5.449	5.806	6.263
<b>Etzetresnak</b>	4.795	4.692	5.927	6.200	6.578	7.224
<b>Telebista eta irrati hargailuak, soinu eta bideo grabagailuak</b>	8.741	8.765	4.798	4.946	5.242	5.638
<b>Motor elektrikoak, sorgailuak eta transformadoreak</b>	6.046	5.997	6.657	6.927	7.250	7.722
<b>Alanbreak eta kable isolatuak</b>	12.659	15.077	14.288	15.074	16.548	18.723
<b>Ordenagailuak eta bulegoko makinak</b>	8.318	7.584	8.037	8.265	8.799	9.361
<b>Motordun ibilgailuak eta ordezeko piezak</b>	57.307	68.812	77.525	82.625	88.442	96.628
<b>Motorrak, bizikletak eta garraiorako beste ekipo batzuk</b>	17.341	19.083	21.350	22.436	24.400	27.277
<b>Negozioetarako zerbitzuak</b>	34.125	40.169	44.130	47.825	51.569	56.848

*Iturria: Agentziak egina Euromonitor-en datuekin*

15. taulan ikusten denez, merkatuko bolumena hazi egin da sektore horietan, batik bat negozioetarako zerbitzuetan, motordun ibilgailu eta ordezeko piezen sektorean eta aire girotu industrialeko makinan, enbalajeko makinan, eta erabilpen orokorreko beste makina batzuen sektorean. Sektore horiek ia bikoiztu egin dute euren negozio-bolumena 2013 eta 2018 artean. Bestalde, petrolio birfinduzko produktuak dira urte hauetan negozio-bolumena galdu duten bakarrak, eta baliteke horren arrazoia izatea gobernuak energia berriztagarrien arloan egin duen inbertsio handia.

## 7.2. Negozio-aukerak

Kanpo-merkatutzako kapituluan ikusi da lehiakorrak garela zenbait sektoretan eta Indiak inportazio ugari egiten dituela, batez ere makina mekaniko eta elektrikoetan. Bestalde, joan den uztailan iragarri zen igo egingo zirela automozio sektoreko muga-zergak, eta zenbait produktu elektronikorenak ere igo ziren.

Sektore indartsuei edo potentziala dutenei erreparaturaz gero, ikusiko dugu Indiaren inportazioak edarien sektorean hazi direla gehien, % 110 inguru, baina EAEn ez dira hazi. Badaude etorkizun hurbilean Indian hazkunde azkarra izango duten 4 sektore, eta euskal enpresek arlo horietako aukerak aprobetxatu beharko lituzkete:

- **Hobekuntza teknologikoa eta automatizazioa:** Covid-19aren pandemiak azkartu egin ditu Indiako enpresa garrantzitsuenen automatizazio-planak. Enplegatu kopuruari ezarritako murrizketekin, eta ikusirik enpresek ongi funtzionatzen dutela langileek etxetik lan eginda, automozio eta argindar arloko industrien plan handiak diseinatu dituzte euren ekipoak eguneratzeko eta, lantegiak automatizatuz, eskuz egiten diren lanekiko menpekotasuna murrizteko. Gainera, interes-tasen jaitziera lagungarri izan da ekipo garestietan inbertitzeko. Horrek aukera handiak ireki ditzake euskal enpresentzat, batik bat, automozio, defentsa eta trenbide sektoretan.
- **Energia berriztagarriak:** Espero da energia berriztagarrien gaitasun instalatuak 100 GWeko mugarria gaindituko duela 2020an. Horrek esan nahi du oraindik 75 GW gehiago lortu behar direla hurrengo bi



urteetan, gobernuak 2022rako ezarritako 175 GWeko helburura iristeko. Bien bitartean, industriaren erregulazioak aldatzen ari dira, haize eta eguzki energien sektoreetan lehentasuna emateko Indian bertan fabrikatutako ekipoei. Euskal enpresek posizio ona dute Indiako energia eolikoaren balio-katean, eta aukera handiak dituzte proiektu berriak eskuratzeko. Eguzki energiari dagokionez, euskal enpresek ondoko hauek hornitzen dituzte: eguzki-xaflak fabrikatzeko makinak, energia biltegitratzeko konponbideak, inbertsoreak, eguzki jarraitzaileen osagaiak, eguzki parkeen garapena eta eguzki parkeen eraginkortasuna gainbegiratu eta hobetzeko konponbideak. Arlo horiek guztiek hazkunde handia izango dute datozen 5 urteetan. Halaber, 2019an Txinako ekipoen inportazioen gaineko babes-eskubidea inposatu izanak ere bultzatu du Indiako industria gaitasuna handitzeko inbertsioak egitera.

- **Ingurumena eta hondakinen kudeaketa:** Airearen eta uraren kutsadura jasangaitza da Indian, eta Gobernuak 100.000 milioi dolar estatubatuar bideratu ditu datozen 5 urteetan inbertsioak egin eta hondakin likido eta solidoak kudeatzeko gaitasuna handitzera. Ura tratatzeko proiektu asko Namami Ganga Misioaren menpe daude. Hiri bakoitzak energia-lantegiak behar ditu hondakin solidoak kudeatzeko, eta orobat behar ditu plastikoak, metalak eta elektronika birziklatzeko lantegiak. Airearen kutsadurari dagokionez, hiri handi guztiek egin behar dute kutsadura-mailaren jarraipena, eta berau kontrolatzeko planak prestatu behar dituzte. Euskal enpresek momentuz ez dute presentziarik Indian arlo horretan, eta aukera handia izan dezakete sartzeko.
- **Software garapena:** Enpresa indiarrek mundu mailako liderrak dira software pertsonalizatuko konponbideen garapenean. Gainera, Indiako enpresa askok presentzia dute Madrilen eta Bartzelonan. Bestalde, softwarea garatzen duten konpainia global askok (besteak beste, Facebook, Google, Samsung, Accenture eta IBMk) garapen-zentro garrantzitsuak dauzkate Indian, non milaka software ingeniari enplegatzen baitituzte. Baliteke une egokia izatea lainoarekin, hezkuntzarekin, zibersegurtasunarekin, onlineko jokoekin eta abarrekin lotutako software-garapenean sortuko diren negozio-aukerak aprobetxatzeko. Batzuek uste dute Indiako garapen-kostua Europako kostuaren erdia baino txikiagoa dela, eta behar den lan-eskua erraz aurkitzen dela. Hainbat euskal enpresak Indiako enpresei azpi-kontratatu diete euren garapen-lanaren zati bat. Litekeena da datozen urteetan joera hori azkartzea.

International Trade Center-en arabera, Indiako nazioarteko merkataritza aztertu ondoren, hauek dira inportatzeko potentziala duten produktuak:



Iturria: ITC, Export potencial map





## 8. NAZIOARTEKO HARREMANAK

### 8.1. Nazioarteko kidetasunak

India herrialde protekzionista izan da beti, baina orain nazioarteko salerosketetara itzultzen ari da pixkanaka. Bere bazkide ekonomiko garrantzitsuenetako bat AEBak dira, esportazio asko egiten baititu hara. Txinako merkatua ere oso garrantzitsua da Indiarentzat. Asian, lau itun garrantzitsu ditu sinatuta: Asia-Pacific trade Agreement (APTA), South Asian Association for Regional Cooperation (SAARC), South Asian Free Trade Agreement (SAFTA) eta South Asian Preferential Trade Arrangement (SAPTA).

Indiak nazioartean eta sektore desberdinetan dituen akordioen zerrenda ezagutzeko, jo esteka honetara: <https://commerce.gov.in/InnerContent.aspx?Type=InternationalTrademenu&Id=32>

### 8.2. Merkataritza-akordioak

2017ra arte indarrean zeuden aldebiko akordioei dagokienez, aipatzekoa da badituela akordioak sinatuta ondoko hauekin: Sri Lanka, Singapur, Nepal, MERCOSUR, Hego Korea, Afganistan, Bhutan, Japonia, Malaysia, Bangladesh, Maldiva Uharteak eta Mongolia.

Azken akordioak erakunde hauekin egin dira: Bay of Bengal Initiative on Multi-sectorial technical and Economic Cooperation (BIMSTEC), EB eta SACU (Southern African Customs Union). 2014an orobat abiarazi zen Txinarekiko garapen ekonomikoa eta merkataritza-lankidetzak bultzatzeko akordioa.

Bestalde, gaur egun akordioak negoziatzen ari da herrialde hauekin:

- Thailandia
- Indonesia
- Golkoko Lankidetzak Kontseilua (GLK)
- Australia
- Zeelanda Berria



## 9. ASKOTARIKO ARRISKUAK

16. taula: COFACEren balorazioa

HERRI ALDEA	HERRIALDEAREN ARRISKUA	NEGOZIOETARAKO GIROA	OHARRAK
INDIA	B	B	<p>-INDAR-GUNEA</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Hainbat faktore daude hazkundera bultzatzen dutenak.</li> <li>Lan-indar handia (biztanleriaren % 50 baino gehiagok 25 urte baino gutxiago ditu), ingelesa ongi menperatzen duena.</li> <li>Sektore pribatu eraginkorra, bereziki zerbitzuen sektorea.</li> <li>Atzerriratuek, bitxi, jantzi, ibilgailu eta sendagaien esportazioek eta turismoak ekarpen positiboa egiten diote kontu korronteari.</li> <li>Kanpo-zor moderatua eta dibisen erreserba egokiak.</li> </ul> <p>-AHULUNEAK</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Azpiegiturak behar dira eta gabeziak daude hezkuntza sisteman.</li> <li>Burokrazia gehiegi dago eta tentsio politikoak etengabeak dira.</li> <li>Baliabide energetikoen inportatzaile garbia da.</li> <li>Enpresa pribatuen zorpetze-maila hazten ari da.</li> <li>Finantza publiko ahulak.</li> <li>Kashmir eskualdearen ziurgabetasun-egoera.</li> </ul>

### Hazkundera moderatua izaten jarraituko du

2020an ekonomiak kontrako haizeari aurre egiten jarraituko dio. Barne-kontsumo motela (BPGaren % 60) oraindik suspertzen ari da desmonetizazioaren hondar-inpaktutik (1.000 errupiako billeteak erretiratu izana) eta ondasun eta zerbitzuen gaineko zerga harmonizatuaren (GST) ezarpenetik, izan ere, hiru urte igaro diren arren, neurri horrek inpaktu nabarmena du oraindik sektore informalean. Bien bitartean, kredituak eskuratzeko baldintza zorrotzagoek mugatu egin dute inbertsio pribatua, zeina oinarritzokoa baita herrialdearen hazkunde potentziala desblokeatzeko. Banku sistemako aktibo ez-produktiboak murriztu egin dira, baina asko dira oraindik (2019an % 9,1). Hori dela eta, bankuek zuhurrago jokatzeko dute kredituak emateko orduan, egoera larrituko den beldurrez.

Bestalde, banku sektorea 2018 eta 2019ko ustelkeria eskandaluetatik suspertzen ari da. Inbertsioak gutxiago hazi direnez, lanpostu gutxiago sortu dira, eta langabeziak % 8,45eko maximo historikoa iritsi zuen 2019ko urrian. Baliteke langabezia-tasa jaisten hastea, baina laneko parte-hartze tasak moderatuak dira oraindik, % 43 ingurukoak, eta hori ez da seinale ona etorkizuneko barne-kontsumoarentzat.

Inflazioak ere moderatua izaten jarraitzen du, energiaren eta elikagaien prezioak ahuldu egin direlako. Dirudienek, kontsumitzailearentzako Prezioen Indizea (KPI) Indiako Erreserba Bankuak (RBI) ezarritako helburuaren (% 4,5) azpitik mantenduko da 2020ko urte fiskalean. Posible da gora egitea monzoi garaiko ezohiko euriteek hornikuntza eteten badute. Halere, ezarritako helburua baino KPI baxuagoari esker, RBIk oinarritzokoa 135 puntu murriztu ahal izan zituen interes-tasak 2019an. Baldintza normaletan, hori lagungarri izango litzateke hazkundera etentzat eta enpleguarentzat, baina transmisio arazoak egon dira, NPA altuak direla eta. Litekeena da RBIk murrizketa gehiago aplikatzea interes-tasetan (oinarritzokoa puntu bat edo bi) 2020an, baina inpaktu mugatua izango dute jardueran. Testuinguru horretan, zerga-pizgarrien esku geratuko da erantzukizuna. Gobernuak, bestalde, egiturazko erreformak garatuko ditu atzerriko



inbertsio zuzena (AIZ) eta barne-likidezia bultzatzeko. Indiak sozietateen gaineko bere zerga-sistema berrikusi zuen 2019ko abuztuan, eta orain eskualdeko beste herrialde batzuen -adibidez, Txinaren- pare dago, hala, datozen bi urteetan Indiara doazen goi-mailako teknologia fabrikatzaileek zerga pizgarri handiagoak izango dituzte. Gainera, Finantzen Ministerioak 21 estatu-bankuren bat-egite erraldoi bat iragarri zuen, denen artean 4 erakunde handi sortzeko, eta hori lagungarri izango da kobratu ezin den zorrari aurre egiteko.

### **Finantza publikoek kontrako haizeari aurre egin beharko diote**

Nirmala Sitharaman Finantza Ministroak aurrekontu anbiziotsua aurkeztu zuen 2020rako. Sozietateen zergen gaineko murrizketek gain, pentsio plana zabaltea proposatu zuen, 30 milioi pertsona gehiago barne har ditzan, bai eta nekazaritzako diru-sarrerak bultzatzeko hainbat neurri ere (nekazaritza sektoreak enplegatzen du biztanleria osoaren % 80). Horrek esan nahi du, Indiak ziurrenik gaudituko duela defizit fiskalaren helburua, BPGaren % 3,3raino iritsiko delarik 2020ko urte fiskalean. Izan ere, ondasun eta zerbitzuen gaineko zergatik lortutako diru-sarrerak ez dira izan espero bestekoak, batetik barne-kontsumoa ahuldu delako eta bestetik, bilketa arazoak izan direlako. Halaber, Indiak aurreikusi du inportazio-eskubideak handituko dituela, zerga gehiago jarriko dizkiela diru-sarrera handiak dituzten multzoei, eta bonoak jaulkiko dituela lehen aldiz atzerrian, atzerriko txanponetan. Horrek guztiak lagungarri izan behar luke beheranzko presioak leuntzeko, baina finantza publikoek okerrera egingo dute hobera egin baino lehen.

Seguru asko kontu korrontearen defizita (CA) hazi egingo da. Esportazioek maila moderatu berean jarraituko dute; inportazioak, berriz, handitu egingo dira, barne-eskaera bultzatzeko hartutako neurriei esker. Petrolioaren prezioak berdintsu mantentzen ari dira (60 dolar inguru upeleko 2020an), baina intzidentziaren batek areagotu egin ditzake kontu korrontearen gaineko presioak, oraindik ere petrolio delako Indiak gehien inportatzen duen produktua. Desmonetizazioaren ondoren handitu egin da urre eskaera, eta horrek eragina izaten jarraituko du inportazioen gorakadan. Beraz, litekeena da errupiak depreziazio-presioak jasaten jarraitzea 2020an. Dibisa erreserbak maila erosoan daude (ia hamar hilabeteko inportazioak), eta AIZk eta atzerrian eginiko zorro-inbertsioek gorantz jarraitzen dute. Gainera, espero da datozen urteetan joera hori azkartzea, egin berri diren erreforma estrukturalen ondorioz.

### **Modi-ren BJP alderdiak gehiengoa mantenduko du, baina baliteke babesu murriztea**

Narendra Modi lehen ministroaren Bharatiya Janata (BJP) alderdiaren inguruan sortutako aliantzak garaipen izugarria izan zuen 2019ko maiatzeko Parlamenturako hauteskundeetan (542 eserlekutik 349 lortu zituen). Modi-k bigarren aldiz irabazi zituen hauteskundeak, enplegu sorkuntza eta azpiegitura arloko inbertsioak ardatz harturik. Aldi berean, aurre egin zion ustelkeriari eta nazionalismo hinduaren ideologia sustatu zuen. Nola arlo ekonomikoko aurrerapenak motelak diren, baliteke BJPk agenda nazionalista azkartzea, eta hori ez litzateke mesedegarri izango atzerriko inbertitzaileentzat, politika sekularren zaleak baitira. Indiarentzat ezinbestekoa da AIZ erakartzea azpiegituretako defizita berdintzeko, defizita kontu korrontearen bidez finantzatzeko eta hazkunde potentziala bultzatzeko. Cachemira dela-eta Pakistanekin dituen tentsioak areagotu egin dira, 2019ko abuztuan Modi-k eskualdeari erdi-autonomo izaera kendu ostean.



## 10. ONDORIOA

India etorkizuneko potentzia handienetako bat izango da, hauek direlarik bere indar-gune garrantzitsuenak: BPGaren % 7ko hazkunde konstantea, ingelesa menperatzen duen biztanleria gaztea eta kostu baxuko lan-eskua. Aipatzekoa da, COVID-19a iritsi arte hazkunde handieneko ekonomia izan dela bi urtez jarraian, eta espero da % 7ko hazkunde-tasa berreskuratuko duela 2021etik aurrera, hala diote Munduko Bankuaren eta beste kalifikazio agentzia garrantzitsu batzuen proiektioek.

India Asiara sartzeko atea da, lotura komertzial eta kultural sendoak baitauzka Asiarekin. Munduko ekonomia irekienetako bat da, eta atzerriko inbertsioak automatikoki onartzen dira sektoreen % 95ean. 2019an, India munduko zazpigarren AIZ hartzaile handiena izan zen, 49.000 milioi dolar baino gehiago sartu zirelarik herrialdean.

Indiako lege-sistema Britainia Handikoan oinarrituta dago, zeina independentea baita gobernuarekiko, eta aipatzekoa da hainbatetan motel samarra dela. Indiak zerga-sistema berri bat jarri zuen martxan urtarilean, zeinaren arabera manufaktura sektoreko enpresa berriek sozietateen gaineko zergaren tasa murriztua eska baitezakete (% 17koa). Hori dela eta, Indiako errentaren gaineko zerga-tasak munduko baxuenetakoak dira.

India liderra da energia berriztagarrien sorkuntzan; gaur egun, 90 GW inguru sortzeko gaitasuna du, eta helburua da 2022an 175 GW-ko gaitasuna izatea, arlo horretako munduko bosgarren ekoizlea bihurtuko litzatekeelarik. Herrialdeko arauak lehentasuna ematen diote energia berriztagarriari energia konbentzionalaren gainetik, bai transmisioan eta baita kontsumoan ere. Turbina eolikoen fabrikatzaile handi guztiek (Siemens Gamesa, Vestas, Acciona eta GE) fabrikazio-operazio handiak daukate Indian. Energia garbiagoetan inbertitzeko beste arrazoi bat da airearen kutsadura-mailak handitzen ari direla. Hala, gobernuak politika bat abiarazi behar izan du 2030erako auto eta autobus gehienak ibilgailu elektriko bihurtzeko. Hiri handietako garraio elektrikoa dagoeneko egokitu da mugikortasun elektrikorako, eta auto fabrikatzaile ia guztiek merkaturatu dituzte euren modeloen bertsio elektrikoak. Joera hori azkartu egingo da datozen urteetan, berritutako azpiegituren disponibilitatea hobea izango delarik.

Balio-kateari dagokionez, Indiako enpresak hasi dira fabrikazio-sistema aurreratuak erabiltzen, hala nola, 4.0 Industria eta Robotika. Covid-19ak eragina izango du aldaketa horretan, enpresariak langile kopurua murriztuko baitute. Gainera, gobernuak “made in India” markari emandako bultzadari esker, pizgarriak emango zaizkie enpresei, batik batik, ingeniaria astuneko sektoreetako konpainiei (energia, burdinbideak, aeronautika, defentsa eta automozioa) gehiago fabrikatuko dezaten Indian bertan. Bestalde, makina-erremintaren kontsumoak % 10etik gora hazten jarraituko du arestian aipatutako aldaketen ondorioz. Produktu industrialen eskaerak bilakaera ona izango du etorkizun hurbilean.

Covid-19aren ondoriozko desazelerazioaren erdian tokiko industria bultzatzeko asmoz, gobernuak politika berri bat aurkeztu du plan eta pizgarri berriak martxan jartzeko hainbat sektoretan (ikatz eta burdinaren meatzaritza, gailu medikoen fabrikazioa, osagai farmazeutikoak, osagai elektronikoak eta kontsumo-ondasunak). Txinarekiko gatazkari dagokionez, gobernuak ez du nahi Txinak proiektu publikoetan parte hartzerik, eta baliteke negozio hori mendebaldeko herrialdeetarantz desbideratzea.

Gauzak horrela, euskal enpresek negozio-aukera onak izan ditzakete Energia Berriztagarrietan, produktu industrialetan (adibidez, makina-erremintan), azpiegituren inguruko aholkularitzan, gailu medikoen eta ibilgailu elektrikoaren osagaien fabrikazioan eta karga-azpiegiturretan. Halaber, aukerak egon behar lirateke Hiri Adimendunen garapenean, esaterako, hondakinen kudeaketan eta garraio publikoan.



## 11. ERREFERENTZIAK

1. Basquetrade (2019ko urtarrila): Nazioarteko merkataritzako joerei eta euskal esportazioen posizionamenduari buruzko txostena.
2. BasqueTrade (2018ko iraila): Basque Trade-ren laguntza jasotzeko interesgarritzat jotzen diren herrialdeei buruzko azterlana.
3. CIA (2020ko apirila, azken eguneratzea): The word factbook: India. [Esteka](#)
4. COFACE (2020ko otsaila) Economic studies: India. [Esteka](#)
5. ICEX (2019ko uztaila): Aldaketak Indiako muga-zergen tarifetan. [Esteka](#)
6. ICEX (2019ko martxoa): Herrialde-fitxa. [Esteka](#)
7. Kanpo-gaietako Ministerioa, Europar Batasuna eta lankidetzak (2019ko ekaina): Herrialde-fitxa. [Esteka](#)
8. Ministry of Commerce and Industry (2020ko maiatza, azken eguneratzea): Trade agreements. [Esteka](#)
9. Santander Trade (2020ko maiatza, azken eguneratzea): India: nola administratu enpresa bat. [Esteka](#)
10. Santander Trade (2020ko martxoa): India: aurkezpen orokorra. [Esteka](#)
11. UNCTAD (2019ko ekaina): World Investment Report 2019. [Esteka](#)

© Agencia Vasca de Internacionalización  
Basque Trade and Investment S.A.



**BasqueTrade  
& Investment**

Agencia Vasca de Internacionalización  
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia

GRUPO  
**spri**  
TALDEA



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
BASQUE GOVERNMENT**